

Usurbilgo Udala

2017KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko urriaren 31n, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: IRAILAREN 18TIK URRIAREN 20RA (2017/0962-2017/1071).

Alkatetzak 2017ko irailaren 18tik urriaren 20ra bitartean (2017/0962–2017/1071) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- 2018RAKO ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA.

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu. Ogasun batzordean diktaminatu zela eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko zerga ordenantza eta egutegi fiskala direla esan du.

Azken 3 urtetan eguneratu gabe badago ere zerga ordenantza, hurrengo urterako ordenantzan prezio eta tasen eguneraketa bat egitea proposatzen dela dio. Eguneraketa orokorra %3koa izango dela azaldu du, baina tartean badaudela dio bere horretan mantentzen direnak ere, hala nola, IEA, ICIO, Eraikuntzako zergak.

Badagoela dio batzordean tratatu zuten zerbait baina plenorako ekarri den proposamen honetan falta dena eta jaso beharrekoa, hilerriko prezio berri bat hain zuzen ere.

Jarraian, irizpenean jasotzen den moduan, aldaketen berri eman du.

Ondasun Higieziniei buruzko Zergaren Kuotak: Tipoaren eguneraketa bat egiten dela esan du. Hemen azpimarratzekoa dela dio 3 kasutan Foru Arauak jartzen duenaren azpitik daudela.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Progresibitate irizpidea kontutan hartuta, hemen lanketa berezi bat egin dela aditzera eman du. Hau da, zenbat eta txikiagoa izan edo gutxiago kontsumitu tipo edo zerga karga txikiagoa da. Kasu honetan, %3ko igoera aplikatu dela esan du.

Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduerak burutzeagatiko Tasak: Guztiek %3ko igoera izan dutela adierazi du. Aipatzekoa dela dio hondakinen kasuan, sortzez-besteko tarifa aplikatzen dela eta etxebizitzaren kasuan, tarifa aldakorrek borobildu egin direla esan du. Usurbil 0.0 hondakin printzipioaren baitan, kasu honetan ere gehien kutsatzen duenak gehien ordaintzearen progresibitate irizpidea erabiltzen dela esan du.


Udal baratzen kasuan, prezioak eguneratu direla dio baina urte hasieran likidatu beharrean urte amaieran likidatuko direla, eta proportzionaltasuna hilabete osokoa izango dela esan du.

Etkez etxeko zerbitzuaren eta eguneko zentroko prezioak Foru Aldundiak ezartzen dituela azaldu du eta horien arabera onartzen direla.

Oiaro Kiroldegiko sarrera abonua Buruntzaldea osoan adosten direla eta %1,9ko igoera proposatzen dela esan du.

Hileta zerbitzuei dagokionez, Udala errautsen parkea egiten ari dela azaldu du eta horren tarifak txertatzen direla esan du.

Josune Urkolak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan koefizientea eta kuota aipatzen direla, eta koefizientea zertarako izaten den galdetu du.



Usurbilgo Udala

Kontu-hartzaileak erantzun dio Foru Arauak koefiziente bat markatzen duela bakoitzeko eta Udalei aukera ematen diela koefiziente hori handitzeko. Orain arte ordenantza fiskaletan kuota bakarrik jasotzen zela esan du, hau da, errezioboaren kopurua izango dena. Kuota hori aldatu nahi bada, lehenengo Foru Arauak ezartzen duen koefizientea handiagotu behar dela zehaztu du, hori baita oinarria.

Josune Urkolak adierazi du beraiek abstenitu egingo direla, igotzen diren prezioak KPIa baino gehiago igotzen direlako.

Fermin Orue-Echevarriak esan du bera ere abstenitu egingo dela arrazoi beragatik.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Ogasun Batzordeak, 2017ko urriaren 24ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren (EH Bildu) aldeko botoekin, eta Josune Urkola (EAJ) eta Fermin Orue Echevarriaren (PSE) abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENA.- 2018ko Zerga-Ordenantzak behin-behingo onartzea, ondoko aldaketekin:

1.- Ondasun Higieziinei buruzko Zergaren Kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala.

Karga tasa:

	%
Industri eta zerbitzu erabilera	0,5687
Beste erabilerak (etxebizitzak, etab,)	0,1883
Landalur ondasun higiezinak	0,8219


3.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Potentzia eta ibilgailu mota	Koefizientea	Kuota
a) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	1,75	32,11



Usurbilgo Udala

9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	1,72	63,13
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,09	128,40
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,28	195,82
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,43	268,05
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,62	353,13
b) Autobusak.		
21 plazatik beherakoak	2,31	192,63
21 eta 50 plaza bitartekoak	2,44	288,94
50 plazatik gorakoak	2,60	385,24
c) Kamioiak.		
1.000 kilogramotik beherako karga erabilgarria dutenak	2,28	96,31
1.000 eta 2.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,31	192,63
2.999tik gorako eta eta 9.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,44	288,94
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,60	385,24
d) Traktoreak.		
16 zaldi fiskaletik beherakoak	1,82	32,11
16 eta 25 zaldi fiskal bitartekoak	2,31	64,20
25 zaldi fiskaletik gorakoak	2,31	192,63
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak		
1.000 kg.-tik beherako eta 750 kg.-tik gorako karga erabilgarria dutenak	1,82	32,11
1.000 eta 2.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,31	64,20
2.999 kilogramotik gorako karga erabilgarria dutenak	2,31	192,63
f) Bestelako ibilgailuak		
Ziklomotorrak	2,13	9,62
125 c.c. bitarteko motozikletak	2,13	9,62
125 c.c.-tik gorako eta 250 c.c. bitarteko motozikletak	2,49	19,25
250 c.c.-tik gorako eta 500 c.c. bitarteko motozikletak	2,53	39,16
500 c.c.-tik gorako eta 1.000 c.c. bitarteko motozikletak	2,60	80,25
1.000 c.c.-tik gorako motozikletak	2,65	163,72



Usurbilgo Udala

6.- Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduerak burutzegatiko Tasak arautzen dituen Ordenantza.

A.- UR HORNIDURA ZERBITZUA

1.- Ur-zerbitzu orokorra

.- **Tarifa finkoa**, kalibrearen arabera, euroak / hiruhilero

Kalibrea, mm	Euroak /hiruhilero
20 mm arte	6,3
21 – 40 mm	9,96
40 tik gora mm	19,93

.- **Tarifa aldakorra**, erabilera eta kontsumoaren arabera, euroak / m³

KONTSUMOA	ERABILERA			
	Etzerako	Merkatal Garaje	Industria Ostalaritza	Nekazaritza
0 – 30 m ³	0,46	0,58	0,80	0,23
30,01 – 50 m ³	0,58	0,69	0,93	0,37
50,01 –100 m ³	0,69	0,82	1,05	0,41
100,01 – 200 m ³	0,82	0,93	1,40	0,46
200,01 m ³ tik gora	0,50	1,40	1,74	0,52
Igerilekuetako kontsumoa m ³			1,77	

2.- Ur-sarera lotzea, lehenengo aldiz alta ematea.

Kalibrea, mm	Tasa
20 mm arte	68,64
21 – 40 mm	136,17
40 – 80 mm	272,32
80 tik gora mm	544,65

B.- ZABOR BILKETA EZABAKETA

1. Zerbitzu orokorra

1.1.- Hondakin bilketaren **tarifa finkoa**.

Erabiltzaile mota	Tarifa € / hiruhileko
1. Etxebizitzak:	
Hiriguneko etxebizitzak	20,93
Landa eremuko etxebizitzak	18,13
2. Merkatal establezimenduak:	
Sortzaile txikiak	20,93
Sortzaile txikiak landa eremuan	18,13
Beste establezimenduak:	
OBZ (Oinarrizko bilketa zerbitzua) – organikoa	38,85



Usurbilgo Udala

OBZ – organikoa landa eremuan	38,85
OBZ	103,62
OBZ landa eremuan	67,49
3. Poligonoetako Industriak eta merkatal guneak:	
Industria eta merkatal guneak – organikoa	130,09
Industria eta merkatal guneak	416,03
Industria sortzaile txikiak	22,66
4. Beste zerbitzuak:	
Poligonoetako egur zerbitzua	57,11

1.2.- Tarifa aldakorra, sortutako errefusa kopuruaren arabera eta erabiltzaile motaren arabera. Ondoko taulak jasotzen duena da:

Errefusa unitatearen kostua

Ontziaren Bolumena (litro)	€/Unitatea	€/unitatea < 0,1 kg/l komertzioak	Nahastua bada
0 L (etxebizitza)	1,00	-	3,00
40 L	12,89	2,59	39,04
50 L	13,33	2,66	40,52
120 L	12,72	2,56	39,33
240 L	12,72	2,56	53,27
360 L	17,13	3,43	53,27
1000 L	21,45	4,31	67,22


2. Zerbitzu bereziak

2.1.-Bilketa berezien tarifak

Zerbitzua	Tarifa
Tamaina handiko hondakinen bilketa, zerbitzuko	13,61

2.2.-Edukiontzia

Edukiontzi bolumena (litro)	Kostua (€)
40 l	31,00
50 l	42,00
120 l	52,00
240 l	57,00
360 l	73,00
1000 l	217,00



Usurbilgo Udala

C.- ESTOLDERIA ZERBITZUA.

1.- Udal saneamenduko sarera isurtzeko baimenaren tasa:


Etxebitzak eta garaje/trastelekuak	62,00
Merkatal establezimenduak	124,00
Industriak eta obra sustatzaileak	
1,5 pulgadetako hodia	309,00
2,5 pulgadetako hodia	433,00
3 pulgada edo gehiago	618,00

D.- DOKUMENTUEN LUZATZE ZERBITZUA.

Zakur arriskutsuak inskribatzeko baimena	75	
Zakur arriskutsuak eramateko baimena	75	
Udal bulegoetan fotokopiak		
DIN A4 zuri beltzean	0,21	
DIN A4 koloretan	0,31	
DIN A3 zuri beltzean	0,31	
DIN A3 koloretan	0,41	
	39,14	
	Kopisteriko kostua	
Udal liburutegian fotokopiak edo inprimatzea	alde batetik	bi aldetatik
DIN A4 zuri beltzean	0,05	0,07
DIN A4 koloretan	0,20	0,30
DIN A3 zuri beltzean	0,10	
Erabiltzaileak orriak ekarri ezker, % 25 beherapena		

F.- LURZORUAREN LEGEKO 207ARTIKULUKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEKO JARDUERA.

Hirigintzako lizentziak	46,00
Terreno zatiketak, onibarra berri bakoitza	73,00
Lehen erabilera baimenak	
Etxebitzak	25,00
Lokal ez komertzialak	19,00
Lokal komertzialak eta industrialak, m ²	0,58
Nekazal izaerako eraikinak, m ²	0,30




Usurbilgo Udala

G.- JARDUERA LIZENTZIAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAREN EDO INSTALAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN EGIAZTATZE-IKUSKARITZA EGITEAGATIK

1.- Aldez aurretiko baimena behar duten jarduerak:

A.-Jarduera baimenak edo lizentziak ematea:	
Industriak eta tailerrak:	
250 m2-raino	1.229,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
250 m2-raino	610,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Nekazal jarduerak:	
250 m2-raino	305,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Beste jarduera batzuk:	
250 m2-raino	1,052,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Tasa bereziak:	
Jolas aretoak, diskotekak eta dantzalekuak Bingoak eta kasinoak, kategoria bereziko edaritegiak	4.255,00
Gasolindegia, gasolina, lubrikatzaile eta olioen salmenta	852,00
Telekomunikazio azpiegiturak ezartzea	2.104,002

B.-Jarduera lizentzia eman ondoren, jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduaren egiaztatze-ikuskaritza:	
Industriak eta tailerrak:	
250 m2-raino	610,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
250 m2-raino	305,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Nekazal jarduerak:	
250 m2-raino	153,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Beste jarduera batzuk:	
250 m2-raino	527,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00



Usurbilgo Udala

Tasa bereziak:	
Jolas aretoak, diskotekak eta dantzalekuak Bingoak eta kasinoak, kategoria bereziko edaritegiak	2.128,00
Gasolindegia, gasolina, lubrikatzaile eta olioien salmenta	427,00
Telekomunikazio azpiegiturak ezartzea	1.052,00

2.- Aldez aurretiko komunikazioa eskatzen duten jarduerak:

A.-Jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduaren egiaztatze-ikuskaritza:	
Industriak eta tailerrak:	
100 m ² -raino	268,00
100 m ² -tik 300 m ² ra	537,00
300 m ² -tik gora, 10 m ² bakoitzeko	6,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
100 m ² -raino	232,00
100 m ² -tik 300 m ² ra	464,00
300 m ² -tik gora, 10 m ² bakoitzeko	6,00
Nekazal jarduerak:	
100 m ² -raino	53,00
100 m ² -tik 300 m ² ra	106,00
300 m ² -tik gora, 10 m ² bakoitzeko	6,00
Beste jarduera batzuk:	
100 m ² -raino	232,00
100 m ² -tik 300 m ² ra	464,00
300 m ² -tik gora, 10 m ² bakoitzeko	6,00
Titularitate aldaketetan jarduerak jarraitzen duenean	52,00

G.2.- HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK

Hirigintza kontsultak	36,00
Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak izapidetzea	75,00
Partikularrek eskatu eta Udalak egindako Arau Subsidiarioen aldaketak, planoen aldaketak berekin badituzte, sortzen dituzten gastuen %80 partikularren bizkar joango dira. Aldaketa ez balitz onartuko udal arrazoiengatik, gastu guztiak Udalaren bizkar izango dira.	



Usurbilgo Udala

H.- PUBLIZITATE LIZENTZIEN LUZATZE ZERBITZUA.

Errotuluaren erakusketagatik	€/m ² /urteko
Argirik gabeko errotulu edo kartelak	31,00
Argidun errotulu edo kartelak	59,00
Pantailetan proiektatutako iragarkiak	59,00

I.- TAXI LIZENTZIEN LUZATZE ZERBITZUA.

Auto -taxien lehen lizentzia	408,00
Eman diren eta indarrean dauden lizentzien eskualdaketak	670,00
Ibilgailuen ordezkapena	29,00
Lizentzien errebisioak	14,00

J.- ARETOEN ERABILERA TARIFAK

	€/ orduko	€/ eguneko
Sutegi Aretoa		
1.- Sutegi Auditorioa		
Teknikari eta elementu teknikoekin	61,30	421,00
Teknikari eta elementu teknikorik gabe	32,00	212,00
2.- Sutegi erakusketa gela		
	16,00	106,00
3.- Garbiketa		
Aretoa		41,30
Kamerinoak edo erakusketa gela		21,00
Aretoa eta kamerinoa		63,00
Artzabal Aretoa		
Teknikariarekin	47,00	337,00
Teknikaririk gabe (bertako ekipamendua erabili daiteke)	13,00	106,00
Garbiketa		32,00
Potxoenea kultur etxea		
1.- Urdintxo Aretoa		
Teknikariarekin	47,00	337,00
Teknikaririk gabe (bertako ekipamendua erabili daiteke)	16,00	106,00
2.- Bilera gela 1/2 eta sotoa		
	13,00	106,00
3.- Garbiketa		
		32,00



Usurbilgo Udala

7.- Udal jabetza erabiltzeagatik Tasak arautzen dituen Ordenantza.

A.- HESIAK, ALDAMIOAK, ZUTABE ETA EUSTAGAIK

	€ m ² edo zatiko eta eguneko
Hesiekin itxitura	0,0927
Aldamioa, azpitik pasabidea utzi gabe	0,1648
Aldamioa, azpitik pasabidea utziz	0,1236
Edukiontzia	4,12
Txabolak	8,24

B.- IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEN APARKAMENDU ERRESERBA BIDE PUBLIKOAN.

Baimendutako ibi iraunkorrek	
Garajeak, ibilgailu eta urteko	6,634
Zoru publikoa erabiltzeagatik, merkatalgune eta industrialdetan, metro lineal eta urteko	73,06
Ibi iraunkorrik gabe	
Garajeak, ibilgailu eta urteko	4,43
Zoru publikoa erabiltzeagatik, merkatalgune eta industrialdetan, metro lineal eta urteko	48,71
Ibi iraunkorreko baimena €/m edo zatiko	14,73

C.- FERIA ETA HERRIKO JAIETAN POSTUAK.

Taberna, kafetegi eta antzerakoetan	2,21
Txosna eta jaietako salmenta edo jolas postuak	1,65
Zirkoak	0,23

Salbuespena: Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.

D.- UDAL BIDE PUBLIKOEN LUR, LUR AZPI EDO LUR GAINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA

Terrazak	2,21
Kutzazain automatikoak, urteko	322,85
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak...), urteko	107,26



Usurbilgo Udala

E.- HILETA ZERBITZUAK

		%20	%40	%60	%80	%90
	Gorpu 1	Gorpu 2	Gorpu 3	Gorpu 4	Gorpu 5	Gorpu 6
Ehorzketa errautsen parkean	102,00	183,60	244,80	285,60	306,00	316,20

F.- LANDA BIDEEN ERABILERA.

Bide mota	€/km/estereo	Fidantza €/km
Asfalto edo zementua	0,37	2.359,73
Gainerakoak	0,73	4.720,49

G.- ASTEROKO AZOKA EGITEKO PLAZAREN ERABILPEN PRIBATUA.

Metro karratuko edo zatiko eta eguneko	1,58
--	------

H.- IBILGAILUAK KALETIK KENDU ETA BILTEGIAN JASOTZEA.

Ibilgailu mota	€
Bizikletak eta ziklomotorrak	32,00
Motozikletak, trizikloak, motokarroak...	54,00
Turismoak eta 3.499kg bitarteko tarakoak	108,00
Kamioi, traktore, atoi, autobus eta 3.500kg baino gehiagoko tarakoak	184,00
Zepoa jarri eta ibilgetzea	54,00


Kendutako ibilgailuak gorde eta zaintzea	€/eguneko
Bizikletak eta ziklomotoreak	7,00
Motozikletak, trizikloak, motokarroak...	7,00
Turismoak eta 3.499kg bitarteko tarakoak	27,00
Kamioi, traktore, atoi, autobus eta 3.500kg baino gehiagoko tarakoak	43,00

I.- UDAL BARATZEN ERABILERA.

30 m ² ko baratza	44,50
60 m ² ko baratza	89,00

Urtean zehar ematen diren alta eta bajetan, kuota hainbanatu egingo da. Alta kasuan, emakida gauzatu den hilabetetik urte amaiera arte kitatuko da. Baja kasuan, urte hasieratik baja gauzatu den hiruhilabete arte kitatuko da.

8.- Zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza.



Usurbilgo Udala

A.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

.- 2006ko abuztuaren 24ean onartutako araudia indarrean jarri baino lehen zerbitzua jasotzen ari ziren erabiltzailean indarrean zegoen arautegia aplikatuko zaio.

.- 2006ko abuztuaren 24ko data duen arautegi berria onartu ezkerko zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileak mendekotasuna duten erabiltzaileei eta autonomoak direnei tarifa berberak aplikatuko zaizkie. Urtero Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten duen orduko prezioa aplikatuko da, lanegun zein jaiegunetan

Finkatutako prezioak Aldundiak jarritakoak dira. 2018koak urte hasieran argitaratuko ditu, erreferentzi modura hauek dira gaur egun 2017an indarrean daudenak

	Gutxienezko kopurua orduko	Gehienezko kopurua orduko
Laneguneko prezioa	0,28€	18,87€
Jaieguneko prezioa	0,33€	22,66€

*Erabiltzaileak ordaindu beharko du gutxienezko eta gehienezko kuoten artean dagokion zenbatekoa, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera kalkulatu dena. Indarrean dagoen etxez etxeko zerbitzuaren foru arauak jarraituz kalkulatu da.

B.- UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK

A) OIARDO KIROLDEGIA

SARRERAK

19 urte edo gehiago	6,10
10 sarrerako bonoa, 19 urte edo gehiago	48,80
18 urte edo gutxiago	3,80
10 sarrerako bonoa, 18 urte edo gutxiago	30,40
Erreserba sarrera	2,00
Dutxa	2,00

ABONUAK

EPEA	FAMILIARRA	19 urte edo gehiago	18 urte edo gutxiago, pentsioduna, erretiratu. eta 25 urtez beherako ikasleak
urt. – abe., ots. - abe.	244,00	161,00	101,00
mar. - abe.	228,00	150,00	94,00
api. – abe.	208,00	137,00	86,00



Usurbilgo Udala

mai. – abe.	187,00	123,00	77,00
eka. – abe.	167,00	110,00	69,00
urt. – eka., uzt.- abe.	159,00	104,00	66,00
ots. – eka., abu. – abe.	138,00	91,00	57,00
mar. – eka., ira. – abe.	118,00	78,00	49,00
api. – eka., urr. - abe.	98,00	64,00	40,00
mai. – eka., aza. - abe.	77,00	51,00	32,00
eka. – eka., abe. – abe. edo hilabete naturala	57,00	37,00	24,00

OIARDOKO ERRESERBAK


Squash (60´)	5,30
10 saioko bonua	42,40
Sauna	3,80
10 saioko bonua	30,40
Pista kirolanitza (60´)	21,90
Argia	4,45
Pista kirolanitza (60´) 1/3	8,45
Argia	1,65
Pista kirolanitzean gomak jarri eta kentzea	309,00
Kanpoko zelaia	16,35
Argia	4,30
Gela erabilanitza	8,45
Tatamia	10,55

OIARDOKO ZERBITZUAK

Giltza puskatzea, galtzea	5,30
Karneta puskatzea, galtzea	3,60
Txanoa	2,00

IKASTAROAK IKASTURTEKO PREZIOA

Ikastaroa	Abonatuak
Zumba eta aerobik astean 2 egunez	137,55
Mantentze gimnastika 3 egunez	206,35
Pilates eta Jumping astean 2 egunez	286,15
Spinning, tonifikazioa eta igeriketa eskola astean 2 egunez	229,30
3.adinako gimnastika astean 2 egunez	62,35
Igeriketa umeak: dordoka	429,20
Igeriketa umeak: karramarro	382,00
Igeriketa umeak: olagarro eta antxoa	286,15
Igeriketa umeak: Angula eta izurde	229,30



Usurbilgo Udala

Yoga, astean behin (ordu eta erdi)	171,95
------------------------------------	--------

Ikastaroa	Iraupena	Abonodunak
Hautxoentzako igeriketa ikastaroa, astean 2 egunez	3 hilabete	143,05
Helduen igeriketa hastapena, astean 4 egunez	1 hilabete	63,45
Helduen igeriketa hobekuntza, astean 2 egunez	3 hilabete	76,40

Abonatu ez diren ikasleak bikoitza ordaindu beharko dute ikastaroa.

B) UDALAREN BESTE KIROL INSTALAZIOAK

HARANE FUTBOL ZELAIA

Ondoren gehitzen den laukietan adierazten diren prezioak €/ orduko izango dira.

	Abonodunak
Zelai osoa (60')	49,45
Argiarekin	62,10
Zelai erdia (60')	27,25
Argiarekin	33,50

PILOTALEKUAK

Pilotalekua (60')	13,55
Argiarentzako fitxa	3,95


C.- HAUR ESKOLAREN HEZKUNTZA ZERBITZUA

1.- Usurbilen erroldatutako guraso eta haurrak:

	€/hilean
Egun osoko zerbitzua	273,37
Egun osoko zerbitzua eta merienda	295,57
Egun erdiko zerbitzua	110,70
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	210,33
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	90,77
Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberioia	114,03
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberioia	193,79
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberioia eta merienda	218,07

2.- Usurbildik kanpo erroldatutako guraso eta haurrak:

	€/hilean
Egun osoko zerbitzua	340,42
Egun osoko zerbitzua eta merienda	369,47
Egun erdiko zerbitzua	138,38
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	262,92
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	148,33
Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberioia	142,53
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberioia	243,54
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberioia eta merienda	272,60



Usurbilgo Udala

D.- EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA

Mendekotasuna duten erabiltzaileak:

	Gutxienezko kopurua eguneko	Gehienezko kopurua eguneko
Eguneko prezioa	7,85	16,00

*Erabiltzaileak ordaindu beharko du gutxienezko eta gehienezko kuoten artean dagokion zenbatekoa, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera kalkulatu dena.

Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Autonomoak diren erabiltzaileak:

	Gutxienezko kopurua eguneko	Gehienezko kopurua eguneko
Eguneko prezioa	7,85	42,84

*Erabiltzaileak ordaindu beharko du gutxienezko eta gehienezko kuoten artean dagokion zenbatekoa, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera kalkulatu dena.

Gutxienezko kopurua, Aldundiak finkatutako prezioa da. Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 dekretuan aurreikusitakoari jarraituz, gehienezko kopurua, berriz, Udalak finkatutakoa da

10.- Zuzenbide publikoko udal zergen eta beste diru sarreraren kudeaketaren eta bilketaren gaineko ordenantza nagusia

27. artikulua: Egutegi fiskala.



Usurbilgo Udala

2018 URTEKO EGUTEGI FISKALA

ZERGA KONTZEPTUA

ORDAIN EPEA

- | | |
|--|--------------------------------|
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: | Urtarrilaren 2tik 31ra. |
| - Ura ,estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: | Otsailak 1etik martxoak 15era. |
| - Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: | Martxoak 1etik apirilak 16ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiruhilekoa: | Apirilak 3tik 30era. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiruhilekoa: | Maiatzak 2tik ekainak 15era. |
| - Ondasun higiezinaren gaineko zerga: | Maiatzak 15etik uztailak 2ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiruhilekoa: | Uztailak 23tik abuztuak 1era |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruhilekoa: | Abuztuak 1etik irailak 17ra. |
| - Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): | Irailak 3tik urriak 1era . |
| - Ekonomi jarduera gaineko zerga: | Urriak 1etik azaroak 12ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruhilekoa: | Urriak 1etik 31ra. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruhilekoa: | Azaroak 2tik abenduak 17ra. |
| - Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutxazain automatikoak...): | Azaroaren 2tik 30era. |
| - Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...): | Azaroaren 2tik 30era. |

XEDAPEN GEHIGARRIA.

- 1- Kopuru gutxiko likidazioak Tributuen likidazioen kuota 6 euro baino gutxiago den kasuan, bilketaren kostua estaltzeko nahikotzat jotzen ez delako, zergapekoari ez zaio zerga likidazioa jakinaraziko eta zerga bilketa eta kontabilitateko kontuetan bertan behera utziko da.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz.



Usurbilgo Udala

Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

3.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA (2017-2020).

Alaitz Aizpuruak azaldu du udaletxe honek azken urteetan ez duela plan ekonomiko finantzariorik egin, ez duelako behar izan. Momentu honetan, ordea, Zumarteko inbertsioak direla medio, egin beharra dagoela esan du. Gaineratu du bai batzordean eta baita gerora egindako bilera batean ere luze eta zabal hitz egin dutela gai honi buruz.

Kontua dela dio Foru Aldundiak duela udalen “tutela” finantzarioa eta beraien oniritzia behar dela eta, udalen kasuan, beraiek direla estatuko kontrola garantizatzen dutenak. Plan hau Foru Aldundiarekin batera ari direla lantzen esan du, abuztuan hasita, eta gaur dela eguna dio Foru Aldundiaren oniritzi formal hori ez dutela. Oniritzi hori pleno honetarako eduki nahi zutela dio, batez ere, Foru Arauak jartzen dituen epeak betetzeko asmoz. Foru Aldundiak epeei dagokienez margen bat eman diela adierazi du eta hori horrela proposatzen dutena da puntu hau mahai gainean uztea eta behin Foru Aldundiaren oniritzi formalak eskuartean izatean plenora ekartzea.

Puntu hau, aho batez, mahai gainean uztea erabaki da.

4.- MAILEGU ERAGIKETAREN KONTRATAZIOA.

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Puntu hau aurrekoarekin lotuta dagoela eta Zumarte Musika Eskolako proiektuarekin aurrera egiteko beste pauso bat dela esan du. Adierazi du ekaineko plenoan onartu zela kreditu aldaketa eta hainbat banketxeren bi milioiko maileguaren proposamenak lantzen aritu direla.

Udalbatzarrera ekartzen duten proposamena da mailegua Kutxabank entitatearekin egitea proposamenean jasotzen diren ezaugarriekin.

Udalerrian udalak lan egiten duten banketxeetan eskatu dituztela proposamenak eta jakinarazi du Kutxabankena dela bakarra Udalak jarritako baldintza guztiak betetzen dituen.

Idazkariak gaineratu du Alaitzek esan duen moduan batzordean eta beste bilera batean tratatu zela gai hau eta alkatearen proposamen bezala datorrela, beraz, tratatzea berretsi egin behar dela. Deialdiarekin proposamena banatu dela esan du, batzordeko proposamena-eta espedientean daudela adierazi du.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez puntu hau aztertzea erabaki dute.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2017ko aurrekontuak aurkeztu genituen batzorde eta Udalbatzatan esan genuen bezala Zumarte Musika Eskolaren proiektua gure Gobernu programan jasota zegoen eta horretan lanean ari gara. Egun aurreproiektua definituta dago eta exekuzio proiektuaren idazketako azken fasean ari gara lanean.

2017ko ekainak 19ko batzordean eta ondoren ekainak 27ko plenoan onartu genuen lanak abiatu aurretik beharrezko kreditu aldaketa eta plan finantzarioa egiteko prozeduraren hasiera.

Oinarrizko proiektua 1,8 miloi eurotako kostua aurreikusten du. Horrekin batera zuzendaritza, segurtasunak, ekipamenduak eta bestelako gastu batzuk ere egon daitezkeela kontutan izanda, 2 milioiko kreditu aldaketa egin genuen.

Esandako lanak aurrera atera ahal izateko, Udalbatzarrak (Hasierako onespena: 2017/06/27; behin betiko onespena: GAO 2017/08/07)) kreditu aldaketa onartu zuen (2017/0002), behar kreditua sortuz (2.000.000,00 €). Kreditu horren finantzazioa mailegu eragiketa baten bitartez egitea erabaki zen.

Mailegua kontratatzeko dagokion prozedura burutu eta jasotako eskaintzak aztertu eta gero, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

2017ko aurrekontuan aurreikusitako 2 milioiko kreditu eragiketa Kutxabank entitatearekin egitea, betiere ondorengo baldintzapean:

Kopurua: 2.000.000,00 €

Epea: 10 urte

Gabealdirik gabe

Amortizazio finkoa, hiruhilean behin

Interes-tasa: urteko Euriborra + 0,40 puntuko diferentziala

Aldaketako epealdia: urtekoa

Komisiorik gabe

Biribilketarik gabe

Erabiltzeko epea: 2 urte

Bermea: Udal Finantzaketako Foru Funtsa”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- ARRETA ZERBITZUAK, S.L. ENPRESARI ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZU KONTRATURAKO JARRITAKO BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Gizarte Zerbitzuetako batzordeak diktaminatuta datorrela adierazi du. Azaldu du etxez etxeko zerbitzua 2009ko irailean 4 urterako gehi bi urtez luzagarri esleitu zela, epea pasata berriz ere lizitazioa martxan jarri zela, baina lizitazioa desertu geratu zela. Ondoren, lizitazio berriko kontratua enpresa berdinarekin (Arreta Zerbitzuak S.L.) 4 urterako 2016ko irailean sinatu zela gaineratu du.

Jarraitu du esanez Arreta Zerbitzuak S.L. enpresak jarritako bermea itzultzeko eskaera luzatu duela eta aldeko txostena eman dela, berme horrek kontratua amaitu eta urtebete iraun behar baitu.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: ID.05/2009-0441

1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

Alkate-Lehendakariak etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko beharrezko administrazio izapideak hasteko agindua eman zuen 2009ko irailaren 17an. Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2009ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran Usurbilgo Etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitu ahal izateko kontratazio espedientea onartzea eta prozedura irekia deitzea erabaki zuen. Esleipena ARRETA ZERBITZUAK, S.L. enpresari egin zitzaion eta alderdiek kontratua formalizatu zuten 2010eko urtarrilaren 2an.

Kontratu horretako 3. klausularen arabera kontratua burutzeko epea lau urtekoa zen, hitzarmena izenpetzen zen egunetik kontatzen hasita, eta administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritako moduan luzatu ahal izango zen, hau da, beste bi urtez, urtez urte. Luzapen guztiak burutu ziren.

Lizitazio berria desertu geratu zen eta hortaz, 2016ko urtarrilaren 2tik aurrera esleipen berria osatu arteko kontratu txikia egin zen. Kontratu berria 2016ko irailaren 15ean sinatu zen.

Enpresak bermea itzultzeko eskaera aurkeztu zuen eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak bermea itzultzearen aldeko txostena eman du.

Kontratu hau arautzen duen Administrazio Zehatzen agiriak, bere 17. klausulan ("Bermealdia") honela dio: "Zerbitzua emateak iraute duen denbora osoaz gain, urte beteko epea ere ezartzen da, zerbitzua amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta, aipatutako Legean aurreikusitako ondorioetarako (...)".

Kontratazioko teknikariak egindako txostenaren arabera, esleipen berria egin arte kontratu hau bera luzatu zen, lehenengo lizitazioa hutsik geratu ostean eta kontratu berria 2016ko irailaren 15ean sinatu zen. Hortaz, urte beteko epea kontratu berriaren sinaduratik (hau da, aurreko kontratuaren indarraldia amaitzen den unetik) kontatu behar dela. Hori horrela, berme hau 2017ko irailaren 15etik itzuli daiteke.

Azkenik, kontratazio organoa Udalbatza izan zenez, organo berdinak erabaki behar du bermea itzultzea.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2017ko urriaren 18an egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: ARRETA ZERBITZUAK, S.L. enpresari, etxez etxeko laguntza zerbitzu kontraturako jarritako behin betiko bermea itzultzea, hau 7.178,75 €-takoa izanik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arreta Zerbitzuak, S.L. enpresari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuen departamentuari ematea."



Usurbilgo Udala

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- USURBILEN HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA ALDATZEA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Zerbitzu eta Obrak batzordeak diktaminatuta datorrela esan du. Usurbilen hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza 2010ean onartu zela, baina errautsen parkea eraikiko denez, egokitu beharra dagoela adierazi du.

Halaber, aipatutakoaz gain ordenantza honetan beste aldaketa batzuk egin beharra ere ikusi dutela dio. Hala nola, hileta zibilak egiteko leku gehiago eskaintzea, 10. artikuluan jasotzen den hileta edo omenaldi zibila egiteko ordutegia aldatzea eta 11. artikulua ezabatzea.

Ondoren, ordenantza aldaketaren prozedura azaldu du.


Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.17/2017-0521

Aurrekariak

Usurbilgo Udalean hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ezenez, 2010eko azaroaren 11an Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, *Usurbilen hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza*, behin betiko bilakatu zen. Hori horrela, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, Hasierako onespenean Plenoan onartutako aldaketekin ordenantzaren testo osoa, 2011ko martxoaren 18ko 53 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ikusirik



Usurbilgo Udala

- Hilerrri berrian errautsen parkea eraikitzen ari denez, hileta edo omenaldi zibilen ordenantza aldatu behar da.

Prozedura

Ordenantza aldatzeko prozedura, berau indarrean jartzeko bera da, hau da, gorago jasotako Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 49. artikulua araberakoa:

- Dagokion informazio batzordeak irizpena igorri eta Udalbatzak onetsi beharko du, gehiengo soilarekin.
- Ondoren, jendaurreko informazioa eta interesdunaren entzunaldia abiatuko da, 30 egunez gutxienez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Hasierako onepenari buruzko erabakia udaleko web-atarian argitaratuko da, ediktuen taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Epe barruan aurkeztu diren erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi ondoren, udalbatzak behin betiko onetsiko du, aurretik dagokion batzordeak irizpena emanda.

Hasierako erabakian ezar daiteke erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordenantza edo araudia behin betiko onetsizat joko da, zuzenean.

Kontutan harturik

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2017ko urriaren 19an egindako bilkuran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA


LEHENENGOA: Usurbilen hileta edo omenaldi zibilak egiteko Udal ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea, atxikitako eranskinean jasotako aldaketak kontuan hartuz.

BIGARRENA: Aipatu ordenantzaren aldaketaren jendaurreko informazioa eta interesdunen entzunaldia abiaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, 30 egunez, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitez. Epe horretan iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsizat joko da, Udalbatza plenoaren berariazko akordio beharrik gabe.

Testua, ediktuen taulan eta udaleko web orrian ere argitaratuko da.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari



Usurbilgo Udala

Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- 2018 URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Urtero moduan, azaroaren erdi alderako Eusko Jaurlaritzari jakinarazi behar zaizkiola dio hurrengo urteko herri barruko taxien tarifak.

Azkenengo aldaketa 2014an izan zela eta geroztik Buruntzaldean ez dela igoerarik onartu aipatu du. 2018rako, aldiz, taxisten bi elkarteek igoera bat proposatu dutela dio. Gipuzkoako Taxien Elkarteak %1,8ko igoera proposatu duela dio eta AGITAXek %1,6ko igoera.

Irailaren 28an egindako Buruntzaldeako Taxiaren Eskualdeko Batzordean, AGITAXek egindako proposamena onartzea erabaki zutela adierazi du, hau da, 2018rako %1,6ko igoera onartzea.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2017-0494

Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxien legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, *(Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).*

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik



Usurbilgo Udala

udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

Ikusirik

2016ko abenduaren 26ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2017. urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2017 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2017ko HIRI BARRUKO TARIFA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxienez o tarifa	Egindako km	Itxaronaldi a, orduko	Gutxienez o tarifa	Egindako km	Itxaronaldi a, orduko
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

Gutxienezko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

**Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.*

***Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.*

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan **2018. urterako USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA** aurkeztu dute Gipuzkoako taxilarien bi elkarteek.

2018. urterako Taxilarien elkarteetatik aurkeztu diren proposamenak hauek dira:

"1.- G.TAXI GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEARTEAREN TARIFAK 2018 URTERAKO


G.TAXI Gipuzkoako Taxisten Elkartearen izenean Gregorio Alias Jerico jaunak hau dio:

- Azken hiri barruko tarifa igoera 2013ko abenduaren 4ko Erabakiaren bidez onartua izan zen, EHAA 2013/12/20, 2014. urterako. Ondoren, igoera berak egiaztatuz argitaratu dira Erabakiak.

- Harrezkero, Buruntzaldeako eskualdearen ez da auto-taxi zerbitzurako tarifa-aldaketarik egon. Ordezkatzen dugun sektoreko profesionalek, sufritu den eskaeraren uzkurduraren aurrean (krisi ekonomiko-finantzario larria eta kontsumoko prezioen igoeragatik izana) ez dute tarifa-aldaketarik eskatu.

- Hala ere, azken hilabeteetan zehar, krisiaren gairak dituztearen sintoma adierazgarriak daude eta taxiko profesionalek bere gastuen prezioetan halako igoera batzuk aurkitzen dituzte non bere eroste-ahalmenean negatiboki eragiten duten. Adibidez:

** Autonomo-Erregimeneko kotizazioko oinarri minimoa %3 igo da 2016tik 2017ra (Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorren web-gunea).*



Usurbilgo Udala

* Gipuzkoako KPI orokorra % 1,3 hazi da 2016ko ekaina eta 2017ko hilabete bera bitartean (Estatistika Nazio Institutuaren web-gunea).

* Denboraldi berdinean, autoen prezioak % 3,3 igo dira eta beren mantenu gastua % 1,5 (Estatistika Nazio Institutuaren web-gunea).

- Sektorerako adierazgarriak dira beste epigrafe batzuetan gertatu diren beste igoera garrantzitsu batzuk:

* Oro har garraioa % 2,2 igo da (Estatistika Nazio Institutuaren web-gunea).

* Pakete turistikoaren prezioak % 9,1 igo dira (Estatistika Nazio Institutuaren web-gunea).

- Taxilarietako eta kontsumitzaileetako interesak orekatzeko saiakeran, sektoreko profesionalek % 1,8ko tarifa igoera proposatzen dute 2018rako.

2.- AGITAX TAXIAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAREN TARIFAK 2018 URTERAKO

AGITAX Taxiaren Gipuzkoako Elkartearen ordezkariak Emilio Fernandez Hidalgo jaunak azterketa ekonomikoa aurkeztu du eta datorren urteko tarifei dagokienez hau dio:

- Erabili behar den barruko elkartutako tarifa, berrikuspena eta % 1,6eko igoera egin ondoren (erantsitako azterketa ekonomikoan oinarrituta), 2018 urterako tarifen taula, prezio hauekin gelditzen da:

2018ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,2019	1,1059	21,2222	6,2004	1,7715	33,3527

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

*Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte **bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.


2017ko irailaren 28an Buruntzaldeako Taxiaren Eskualdeko Batzordea ospatu zen bi elkarteek proposatutako tarifak aztertzeko. Bertaratuak: alde batetik Andoain, Urnieta, Hernani eta Usurbilgo ordezkariak, guzti hauek bokal bezala jardunez eta bestetik, G.Taxi Gipuzkoako Taxilarien elkarteko eta AGITAX Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkariak, etorle bezala.

Bi proposamenak entzun eta aztertu ondoren, AHO BATEZ erabaki zen 2018 urterako % 1,6ko igoera onartzea. Honako tarifa eta baldintzak onartu dira 2018 urterako:

2018ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko o tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko o tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,2019	1,1059	21,2222	6,2004	1,7715	33,3527

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

*Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.



Usurbilgo Udala

****Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte *bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.***

Kontutan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalari dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2017ko urriaren 19an egindako bilkuran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo herri barruko garraiorako 2018. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak ONARTZEA.

BIGARREN: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onspena eman dezan.

HIRUGARREN: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunari bidaltzea 2017ko azaroak 14a baino lehen."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- MOZIOA: AUTOBUSEN ZERBITZU PUBLIKOAN MURRIZKETARIK EZ.

Alkateak adierazi du mozio hau Antolakuntza Batzordeak diktaminatuta datorrela eta, jarraian, mozioak dituen hiru puntuak irakurri ditu.

Batzordean aipatu zuen moduan, informazio gisa jakinarazi du herritarren aldetik 1.925 alegazio erregistratu direla Udalean, gai honek herrian sortu duen kezka adierazle. Bestetik, gaineratu du Udalak ere bere alegazio propioa aurkeztu duela, non esaten



Usurbilgo Udala

duten bus zerbitzua beste edozein zerbitzu gisa ez dela aldaezina, egokitzapenak edo aldaketak egin litezkeela, eta kasu batzuetan komeni dela egitea, betiere pentsatuz zerbitzu publikoen kalitatea bermatu behar dela. Eta, kasu zehatz honetan, aldaketak egitekotan herritarrei zerbitzu egoki bat eman behar zaiela.

Aurrekoa transmititu zaiela dio Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa saileko diputatuari eta teknikariari, eta hauekin egindako bileran esan zaiela dio proposamen hau egin dela batez ere erabiltzaileen datu errealetan oinarrituta. Ikusi omen dute autobus zerbitzu eta linea batzuk ez direla apenas erabiltzen eta iruditu zaie hori horrela ezin dela sustengatu, horren ondorio proposatzen dituzten murrizketak.

Udalaren aldetik, diputatuak eta teknikariak esandakoari erantzun zitzaioela dio Udalak datu horiek ez dituela eta, zerbitzu batzuk gutxi erabiliko balira ere, beti pentsatu behar dela dio autobus zerbitzua erabiltzen duten herritarrak sektore ahulenetakoak direla eta, beraz, batzuetan erabiltzaile gutxi izatea ez dela nahikoa arrazoi eta badaudela beste irizpide batzuk. Azkenean, beste hainbat zerbitzu bezala defizitariora izan daiteke baina garraio publikoa indartu nahi bada ez dela murrizketetara jo behar modu justifikatu batean ez bada.

Moziio honek ere eskatzen duela esan du aurrera ez joatea ez bada behintzat lanketa sakon bat eginda. Irudipena dute gauzak eginda eman zaizkiela eta uste dute alde aurreko lanketa bat beharrezkoa dela.

Josune Urkolak adierazi du moziioarekin ados daudela, baina kontutan hartuta zerbitzua berraztertu behar bada hala egingo dela, ikusiz ea linea guztiak mantendu behar diren ala ez, eta beti garraio publikoaren alde eginez.


Fermin Orue-Echevarriak, batzordean esan zuen bezala, Diputatuarekin eta Zuzendariarekin hitz egin duela jakinarazi du eta eskuartean duela dio lehenengo sei hilekoaren txostena.

Bi linea daudela dio, T6a Hernanira doana eta T2a Ospitalekoa.

Bilera horretan bi lineak dauden moduan geratzea eskatu zuela adierazi du, eta lortu zuela dio T6a dagoen moduan geratzea.

T2 (Agina-Usurbil-Lasarte-Ospitalea) linearen kasuan ordea, eman zituzten arrazoiak aurre egitea zaila zela esan du. Astelehenetik ostiralera 19 zerbitzu egiten dituela linea honek eta asteburuetan gutxiago, eta bi egunetako datuak aztertu zituztela esan du, irailaren 18a, astelehena, eta irailaren 20a, asteazkena.

Irailaren 18an Usurbildik Ospitalera 11 bidaiari joan ziren eta bueltan 4 bidaiari. Irailaren 20an Usurbildik Ospitalera 12 bidaiari joan ziren eta bueltan 7 bidaiari. Lasarterekin alderatuz, irailaren 20an bertatik Ospitalera joan ziren 176 bidaiari eta bueltan 110 bidaiari.



Usurbilgo Udala

Ikusita linea Aginatik hasten dela, bertako datuak jakiteko iraila osoko datuak eskatu zituela esan du. Iraila osoan 418 zerbitzu egin zituzten eta guztira 35 bidaiari ibili zirela esan du, denak gainera Txokoaldeko geltokian.

Aipatutako datuak ikusita, oso-oso zaila dela dio arrazoi potoloekin zerbitzu hori mantentzea eskatzea.

Ospitalera joateko ze alternatiba dauden galdetu zuela eta sei alternatiba daudela erantzun omen zitzaion. Txartelarekin behin ordainduta izango lirateke, T6 hartu eta Lasarten T2a hartzea; UK09 hartu eta Errekalden T2a hartzea; azkarrena izango litzatekeena seguraski UK09 Oriora eta bertatik Ospitalera autopistaz joatea; trenez Errekaldera joan eta bertatik T2 hartzea. Beste bi aukera omen daude baina garestiago direnak, UK09 Donostiara eta bertan Donostibuseko 28a hartzea edo trenez Donostiara eta bertan Donostibuseko 28a hartzea.

Txartel berarekin bidaiatu ahal izateko eta merkeago ateratzeko zerbitzu batetik besterako tartea gehienez 30 minutukoa dela esan du. Badaezpada tarte hori luzatzea eskatu zuela bileran esan du eta erantzun omen zitzaion proposamen hori inork ez zuela egin baina 45 minututara luzatzea aztertuko zutela.

Beraz, datuak ikusita T2a mantentzea oso zaila dela adierazi du.

Jone Urdanpilletak, Ferminnek T6 linea dagoen moduan geratzea lortu duela-eta, argitze aldera T6ak aurreproiektuan dituen bi murrizketa nagusiak aipatu ditu. Batetik, Santuenea eta Zubietatik ez da pasatzen eta, bestetik, ordutegia. Linea horrek gaur egun astelehenetik larunbatera ordutegi bat eta igande eta jaiegunetan beste zerbitzu laburrago bat duela esan du. Aurreproiektuan egiten dena da astelehenetik ostiralera zerbitzua mantentzen da eta larunbat, igande eta jaiegunetan zerbitzuak erdira jaisten dira. Ordutegien kasuan ere mantentzen ote den galdetu du.

Fermin Orue-Echevarriak errepikatu du zerbitzua orain dagoen moduan mantentzen dela adierazi zitzaiola. Hala ere, ordutegiari buruz zehazki galdetuko duela esan du.

Jone Urdanpilletak T2 lineako datuak ez ditu zalantzan jarri, baina Lasarte-Orian erabiltzaileak askoz gehiago direla esan du, linea hori kendu egin nahi dela baina Lasarteko erabiltzaileekin finantzatuta dagoela azpimarratu du.

Alkateak, T6a mantentzeari buruz adierazi du egin zuten bileran ere adierazi zitzaiela kontsiderazioan hartuko zutela. Bestalde, ordutegiak garrantzitsuak direla dio, besteak beste, autobus horrek Lasarteko Institutuari ere zerbitzua ematen baitio.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea T6aren oraingo ordutegia ondo doan.



Usurbilgo Udala

Jone Urdanpilletak erantzun dio orain bai ondo doala, baina aurreproiektuko aldaketarekin linea batetik beste linea batetara pasatzeko ordutegiak deskuadratu egiten direla.

Alkateak, T2ko datuei buruz adierazi du datu horiek eskatu zituztela baina ez zitzaizkiela eman. Gaineratu du berarentzat garrantzitsua dela jakitea herritarrek zergatik T2 linea ez duten erabiltzen, beste alternatiba bat erabiltzen delako ote den galdetu du, zeren hala bada eta hori horrela egitea hobesten badute herritarrek zilegi dela dio, baina hori gaur egun ez dakitela zehaztu du. Berak garbi duela dio herritarrei ospitalera joateko zerbitzu egoki bat eskaintzen bazaie, zergatik ez duten usurbildarrek lasarterrek bezala erabiliko zerbitzu hori galdetzen du. Departamenduak egin duen lanketaren eta Udalak dakienaren artean zulo bat dagoela uste du, eta lanketa egitea gustatuko litzaiekeela adierazi du.

Fermi eskatu dio eskuartean duen txostena ahal badu pasatzeko.

Amaitzeko adierazi du, mozioan esaten duten moduan, prozesu ireki bat egotea gustatuko litzaiekeela, eztabaidarako aukerarekin, proposamenak egiteko, alternatibak mahai gainean jartzeko, eta azkenean zentzuzko irtenbide bat bilatzeko helburuarekin.

Gai honekin Ferminek egindako lana estimatu du.

Esp.zk.: ID.13/2017-0454

2017ko urriaren 24an izandako Antolakuntza Batzordean "Autobusen zerbitzu publikoan murrizketarik ez" mozioa aztertu zen eta batzarkideek, gehiengoz (aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta; abstentzioa: Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten eta Udalbatzarrari bere egitea proposatu zioten.

Batzarkideek, gehiengoz, honako mozioa onartu dute:

"Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko irailaren 7an, bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren -"Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko- aurreproiektua argitaratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde-Antolaketa sailak. Aurreproiektu hori jendaurrean erakutsi zen hilabeteko epean, edozein pertsonak edo entitatek alegazioak aurkez zitzan. 2017ko urriaren 6ko Foru Aginduaren bidez, alegazioak eta oharrak aurkezteko epea 2017ko urriaren 23ra arte luzatzea erabaki zen.

Udalok eta herritarrok ez dugu aurreproiektu honen berri izan GAOn argitaratuta ikusi dugun arte. Are okerrago, ez zaigu zuzenean jakinarazi argitaratuta zegoenik ere. Agerikoa da, hortaz, zerbitzu honen esleipenerako tramitazioa ez dela egin herritarroi eta udal-ordezkariei zor zaigun errespetuz. Planteamendu gabezia hori ez da konpontzen zuzenketarako tartea bi astez luzatuta. Beharrezkoa da lanerako metodoa birplanteatzea eta alde zuzenetik kontuan hartzea eragile guztiak.



Usurbilgo Udala

Aurreikusten diren zerbitzu murrizketak ez dira onargarriak, ikuspuntu ekonomizista hutsetik ezarri direlako. Ez da zentzuzkoa XXI. mendean, ingurumen, ekonomia eta mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik garraio publikoan murrizketak egitea. Irisgarritasun murrizteko pertsonak, ikasleak, hirugarren adinekoak eta autorik ez duten beste hainbat herritar bigarren mailako hiritar bezala tratatzea dakar Foru Aldundiaren neurri honek

Usurbildarrok garbi azaldu dugu gure kezka alegazio pertsonalen bidez. Usurbilgo udal erregistroan ia 2000 alegaziori eman zaie sarrera, gaur egungo zerbitzuari eusteko eskatuz. Horrek erakusten du zer-nolako ardura dagoen herrian gai honekin.

Horrenbestez, Usurbilgo Udalak honako mozio hau onartzen du:

1. Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izeneko bus-zerbitzuaren esleipena bertan behera utz dezala eskatzen dio Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari.
2. Zerbitzu horren ezaugarriak eta esleipena nolako izango den lantzeko, herritarrekin, udalekin eta gizarte-eragileekin prozesu ireki bat martxan jar dezala eskatzen dio Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari.
3. Usurbilgo Udalak eskatzen du gaur egun herrian ematen diren bus-zerbitzu eta linea guztiak mantentzea, eta, egitekotan, hoberako aldaketak egitea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

Gai ordenaz kanpo:

Batzarkideek, gehiengoz, Fermin Orue-Echevarriaren aurkako botoarekin eta gainontzekoaren aldeko botoarekin puntu hau gai-zerrendan sartzea onartu dute.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: KATALUNIAKO INDEPENDENTZIA ADIERAZPENA DELA ETA.

Alkateak adierazi du EH Bilduk atzoko egunez aurkeztu zuela testua eta gaur EAJK beste testu bat aurkeztu duela. Bi testuak irakurrita bateragarriak direla uste du, baina ezin izan dutenez hitz egin, proposatzen duena da etenaldi bat egitea.



Usurbilgo Udala

[18:55etatik 19:00etara etenaldia egin da]

Etenaldiaren ondoren, alkateak adierazi du bi ekarpenak kontutan hartuta testu bateratu bat adostu dela eta adierazpena irakurri du.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazpenean esaten denari buruz honakoak aipatu ditu. Batetik, 3. puntuan esaten dela dio “modu demokratikoan adierazi izan baita”, bere ustez hori ez dela horrela adierazi du. Pasa den hilabetean horri buruz hitz egin zutela eta bere ustez zergatik ez zen demokratikoa azaldu zuela.

Konstituzioaren 155. artikuluari buruz esan du artikulua ez dela estatu faxistetan bakarrik existitzen den artikulua, nahiz eta egia den azken urteetan inoiz ez den martxan jarri eta inguruko estatu guztietan dagoela gaineratu du. Alemaniako konstituziokoaren kopia dela azaldu du.

Azpimarratu du batzuk behintzat azken ordura arte saiatu direla elkarrizketarako saiakera bat egiten. Horretaz gain, Katalunian hauteskundeak deitzen bazituzten, Senatuan 155. artikulua hori geldiarazteko aldaketa bat ere proposatu zutela esan du. Halaber, Konstituzioaren beharrezkoak diren erreformak aztertzeko Parlamentuan batzorde bat eratzea ere proposatu zutela adierazi du.

Gaineratu du Puigdemonti hauteskundeak deitzeko eskatu zitzaioela, eta Ferminen ustez nahiz eta Puigdemontek nahi izan, ezin izan zuen edo bere gobernuko bazkideek ez zioten utzi. Jakin duela dio ostiral goizean Lehendakariari esan ziola hauteskundeak egingo zirela, baina bere diputatu batzuk dimititu egin zuten eta alderdia utziko zutela esan zuten, kalea bero-bero zegoen, eta azken momentuan atzera egin zuen.

Beraien ustez 155. artikulua aplikazioak bi helburu izan behako lituzke. Batetik, legezkotasuna berreskuratzea eta, bestetik, hauteskundeak ahalik eta azkarren deitzea. Senatuan aldeko botoa emateko baldintzak bi hauek izan zirela gaineratu du. Bigarren baldintza bete dela dio eta lehenengoa nola betetzen den ikusi beharko dela esan du.

Fermini zuzenduz alkateak adierazi du PSOEk eduki duen jokabidean oinarritzko gauza batek huts egiten duela eta da Katalanen borondatea errespetatuko dela adieraztea. Elkarrizketaz, negoziazioaz hitz egiten dela bai, baina PSOE prest al dagoen galdetzen du Katalanek nahi dutena errespetatzeko. Prest egongo balira, gauzak askoz errazago joango lirartekeela dio. PSOEk esaten duena da elkarrizketa bai baina Konstituzioaren barnean, eta hor Katalanei ezartzen zaien muga bat dagoela esan du, eta hain zuzen ere da ez zaiela onartzen herri independentea izateko duten eskubidea. Horren ondorioz arazoak bata bestearen atzetik datozela esan du. Katalanen gehiengoak independente izan nahi badute ezin dute nahi hori gauzatu eskubide hori ukatu egiten zaielako, eta ukatzaileen tartean PSOE dagoela esan du. Ukatzen den momentutik arazo politiko bat sortzen dela dio eta arazo horren irtenbidea ez dagoela batera garbi. PSOE alderdiak zer egin behar duen galdetzen du, abenduaren 21ean



Usurbilgo Udala

independentismoak irabazten badu, 155. artikulua aplikatzeko eskatu edo zein den irtenbidea galdetzen du.

Fermin Orue-Echevarriak erantzun dio legeak aldatu daitezkeela eta Konstituzioa ere aldatu daitezkeela. Behin baino gehiagotan esan duen moduan, Kongresuan batzorde bat eskatu dutela dio Konstituzioan aldaketak egin daitezkeen aztertzeko.

Pasa den hileko plenoan adierazi zuela dio Etiopia zela estatu bakarria autodeterminazioa onartzen zuena, baina gerora jakin duela dio Etiopiak ere ez duela onartzen, beraz, ez dagoela estatu bakar bat ere onartzen duena. Horretaz gain, NBEk esaten duela dio estatuak dutela babesa bere batasuna zaintzeko.

Bestalde, Katalunia estatu independente bat dela munduan zabaldu dutenean, inork ere kasurik ez diela egin esan du.

Josune Urkolak, alkateak esan duenaren harira, PSOEk esaten duela hitz egin bai baina beti Konstituzioaren barruan, bere ustez aldatu daitezke eta borondate kontua dela dio. Katalunian independentistak eta ez independentistak daudela dio, eta bere ustez beraiek dira erabaki behar dutenak zer izan nahi duten, eta horretarako galdetu egin beharko da. Aldatu behar dena galdera egiteko aukera hori dela uste du, horretarako ados Konstituzioa aldatu beharko dela, baina borondate kontua dela errepikatu du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du urteak direla Kataluniaren afera hasi zela. PSOE, PP edo beste alderdi batzuen aldetik dagoen borondate falta mahai gainean jarri du, behin eta berriz oztopoak jarritz.

Ferminek demokratikoa ez dela ere esan duela eta ikusi beharko litzatekeela dio demokrazia ze parametrotan eta nola neurtzen den.

Kataluniak eta katalanek egun eta hilabete hauetan erakutsi duten demokraziaren kapazitatea nabarmentzekoa dela uste du eta baita inbidiagarria ere.

Fermin Orue-Echevarriak argitu du erabaki ez demokratikoez ari zenean, irailaren 6 eta 7an Parlamentean erabakitakoari buruz ari zela, izan ere ez baitzituzten errespetatu ez Estatut-a, ez Parlamenteko arauak, ez eta Konstituzioa ere.

Arazoa lehenagotik datorrela bai, 2006tik, Estatutaren aldaketarekin. Gaineratu du azken 10 urteetan ez dela ezer egin soluzioa bilatzeko.

Alkateak dio bere ustez Kataluniako arazo politikoa Ferminek adierazi duena baino dezente lehenagotik datorrela. Burujabetza nahi hori Katalunian existitzen dela dio, baita Euskal Herrian ere eta guztiz legitimoa dela. Kataluniari eta Euskal Herriari



Usurbilgo Udala

eskubide hori aitortzen ez zaion bitartean, arazo politiko hori hor dagoela adierazi du. Hobe litzatekeela dio arazo politiko horren kudeaketarako tresnak eskura jarriko balira eta, azkenean, herritarren gehiengoak erabaki dezala modu baketsu eta demokratikoan zer izan nahi duen, formula hori Konstituzioak ez duela onartzen dio baina formula guztiz legitimoa dela azpimarratu du. Gaineratu du formula hori dela arazoa konpontzeko dagoen modurik onena eta ausartuko litzatekeela dio esatera modu bakarra. Gaiari horrela heltzen ez zaion bitartean beti ibiliko direla dio arazoa arazoaren gainetik.

Gaiari buruz kontaera asko egin daitezkeela dio, baina Ferminek osagai oso inportante bat ez duela aipatu esan du, Estatuaren aldetik egon den blokeo sistematikoa Kataluniak egin dituen proposamen guztiei, hain zuzen ere.

Ferminek baieztatu du bai aspalditik datorrela gai hau, baina duela 10 urte esaten zen independentistak zirela %15, orain %50 inguru. Erdi horrek beste erdiari inposatzen badio, soluzio txarra dela adierazi du. Hasteko, guztien artean denentzako ona izan daitekeen soluzio bat aurkitu behar dutela uste du.

Alaitz Aizpurua erantzun dio horrek ezin duela horrela izan.

Alkateak azaldu du badirudiela independentismoa esaten denean opzio markatu bat dela, baztertzaila dela, besteak ez dituela aintzat hartzen. Honen aurrean galdetzen du ea unionismoak besteak kontutan hartzen dituen. Ea onartu behar ote duten dio euskaldunok Espainiaren menpe bizitzea dela postura normala, aldiz, Euskal Herri independente bat ea baztertzaila izango litzatekeen galdetzen du euskaldun eta espainiar sentitzen direnekin, berak ez duela horrela uste dio, denek elkarrekin bizi behar dutela dio bai orain eta baita beste edozein eszenariotan, herri bateko kide direla.

Esp.zk.: ID.13/2017-0477

Batzarkideek, gehiengoz, Kataluniako independentzia adierazpena dela eta, honako Adierazpen Instituzionala onartu dute:

“Kataluniako Parlamentuak Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatu duen honetan, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik, eta Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, Usurbilgo Udalak honakoa adierazten du:

1.- Kataluniako Parlament-ak, pasa den urriaren 27ko bilkuran, Kataluniaren burujabetasuna eta prozedura eratzailari buruz hartutako erabakiak errespetatzen eta laguntzen ditu. Ondorioz, Kataluniako Errepublika aitortu eta errespetatzen du, eta Errepublikaren izaera demokratikoa eta soziala goresten du.



Usurbilgo Udala

2.- Kataluniako erakundeen ordezkaritza eta autogobernu gaitasuna mozteko eta Kataluniako herriaren berezko eskubidea ezabatzeko, Estatuko Gobernuak Espainiako konstituzioaren 155. artikulua babesean hartutako salbuespen kontrol neurri guztiak gaitzesten ditu.

3.- Kataluniako herritarren borondatea errespetatu dadin exijitzen du, borondate hori behin eta berriro hautetsontzietan, modu demokratikoan, adierazi izan baita. Soilik Kataluniako gizarteari eta bere berezko ordezkari instituzionalei dagokie euren etorkizuna erabakitzea, soilik bide baketsu eta demokratikoak erabiliz.

4.- Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.

5.- Zorionak ematen dizkie, bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat.

6.- Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea.

7.- Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Independentziaren aldeko Udalerrien Elkartera (AMI) igortzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, Adierazpen Instituzionala gehiengoz onartu da.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.